



## LGTBIFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA – maiatzak 17

### ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1990eko maiatzaren 17an Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) homosexualitatea gaixotasun psikiatrikoen zerrendatik kendu zuen, eta harrez gero LGBTIfobiaren aurkako eguna ospatzen da egun honetan.

Gertakari historikoa izan zen. Sekulako aurrerapausoa. Gizarte mailan, legegintzan, ... aurrerapenak egin dira, baina, zoritxarrez, oraindik ere, lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual, ... hainbat eta hainbat pertsonen eskubideen alde eta diskriminazioaren aurka borrokatzen jarraitzea dagokigu herritar orori.

Bazterkeria, indarkeria, aurreiritziak, gorrotoa, ... eguneroko errealitate dira, sakon errotuta daude zenbait sektoretan, eta eraso fisikoek ere gora egin dute gure herri edo hirietako kaleetan.

Herritar libreak nahi ditugu, norberak bere sexualitatearen, sexu identitatearen nahiz generoaren arabera bizitzeko askatasun osoa izan behar duelako, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako gizarte batean.

Hori horrela, Debako Udaltzak honakoa adierazten du:

1. Orientazio sexualean eta genero identitatean oinarritutako diskriminaziorik ez duela onartzen, ez eta indarkeriarik ere.
2. Lesbiana, gay, transexual, bisexual, transgenero eta intersexualek euren adierazpen afektibo-sexualak askatasun osoz bizitzeko eskubidea dutela.
3. Euskal gizarte inklusiboa eta askotarikoa aldarrikatzen duela, justuagoa, errespetuzkoagoa eta integratzaileagoa bilakatu dadin.
4. Berdintasunerako eskubidearen eta sexu-orientazio eta generoagatiko diskriminaziorik ezaren alde lan egiten jarraituko duela, askatasuna, duintasuna eta giza eskubideak defendatzeko helburuarekin.

Deban, 2022ko maiatzaren 4an.